

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



■ HERNANI GOIZ EGUZKI

## Aurreneko doinuak, maiatzaren 1ari

Modu berezian ospatuko dute maiatzaren 1a Goiz Eguzkiko jubilatuek, urtero bezala; eta horretarako hainbat jarduera antolatu dituzte, Goiz Eguzkin bertan. Asteartean, 19:00etan, Goiz Eguzki eta Ordiziako Umore Ona abesbatzen emanaldia izango da. Asteazkenean izango dute egun handia; 11:00etan meza izango da, ondoren, karta jokoetako eta kaleko jolasetako sariak banatuko dituzte, eta jarraian, luntxa izango da. ■

■ URUMEA HAUTESKUNDEAK

## 21.267 herritar deituta, botoa ematera

Hernaniar, ereñotzuar eta astigartarrek Gipuzkoako sei ordezkari aukeratu beharko dituzte; aranoar eta goizuetarrek, aldiz, Nafarroa ordezkatu duten beste bost parlamentari.

ESPAINIAKO Kongresua eta Senatua osatzeko, hauteskunde orokorrak daude deituta gaurko, baita Urumea bailaran ere. Bertan, denera, 21.267 herritar daude botoa ematera deituta: 100 aranoar, 587 goizuetar, 15.753 hernaniar (tartean, 475 ereñotzuar), eta 4.827 astigartar.

Kongresurako, Hernani, Ereñotzu eta Astigarragakoek, Gipuzkoako sei ordezkariak hautatzeko emango dute botoa; aranoar eta goizuetarren esku egongo dira, aldiz, Nafarroako bost ordezkariak.

Horretarako, hamabi hautagaitza izango dira Gipuzkoan: EAJ, EH Bildu, Elkarrekin Podemos, PSE-EE, PP, Ciudadanos, VOX, PACMA, Aulki Zuriak, Recortes Cero, PCTE, PUM+J. Nafarroan, aldiz, hamar: Navarra Suma, Unidas Podemos, PSN, EH Bildu, VOX, Geroa Bai, PACMA, Asanblada Social y Política, eta PUM+J.

Senaturako, aldiz, launa senatari aukeratu dituzte gipuzkoarrek eta nafarrek. Nafarrek, zazpi hautagaitza izango dituzte: Cambio-Aldaketa, Navarra Suma, PSN, PACMA, PUM+J, Recortes Cero eta VOX. Gipuzkoan Kongresurako eta Senaturako hautagaitzak errepikatzen dira.

**Ordutegi aldaketa, Kronikak** Urumea bailarako emaitza guztien berri emango du Kronikak biharko alean. Gainera, gaurko bulego-ordutegian ere eragina izango du hauteskunde-egunak. Goizez itxita egongo da bulegoa, eta 16:00etatik aurrera irekiko da. Edozein kasutan, 688 66 07 14 telefonoa erabilgarri egongo da, egun osoan zehar. ■



Herri Eskolako eraikin berrian emango dute botoa astigartarrek.

■ URUMEA UDAL HAUTESKUNDEAK

## Dagoeneko lanean, hurrengorako

Gaur zozketatuko dituzte hauteskunde-mahaiak, Astigarragan.

Gaurkoa ez da, ordea, aurtengo hauteskunde-egun bakarra izango. Hilabete eskas geratzen da bigarren zitarako: udal, foru eta Europako hauteskundeetarako, hain zuzen. Horretarako dagoeneko lanean dabilta alderdi eta erakundeak.

**Zerrenda osoak, interneten** Batetik, udal hauteskundeetarako Hernanin, Astigarragan,

Ereñotzun, Aranon eta Goizuetan aurkeztu dituzten hautagaiak argitaratu zituzten pasaden asteazkenean, eta [www.kronika.eus](http://www.kronika.eus) webgunean daude ikusgai.

**Hauteskunde-mahaiak zozketan, gaur eta bihar** Hilabeteren faltan, udalak ere administrazio lanekin aurrera egiten ari dira, legeak dioen moduan. Hauteskunde-

mahaiak osatuko dituzten herritarrek aukeratzeko zozketa burutuko dute, orain.

Astigarragan, gaur egingo dute zozketa hori, jendaurrean. Eguerdiko 12:00etan izango da, udaletxeko pleno aretoan.

Eta Hernanikoa ere bertan da. Bihar egingo dute maiatzaren 26ko mahaikideak hautatzeko zozketa, goizeko 09:10etan, pleno aretoan. ■

■ HERNANI TURISMOA

## Azkeneko bisita gidatua, gaur

Uztailera arte itxiko dute Biterin dagoen turismoko informazio puntua, txotx denboraldia bukatu dela-eta. Hori horrela, gaur egingo dute azkeneko bisita gidatua hirigunean zehar. 11:30etan hasiko da, gaztelaniaz, eta parte hartzeko, bertaratzearekin nahikoa izango da, ez da erreserbarik egin behar. ■

■ HERNANI AURKEZPENEA

## Bi liburu, Nahikari Diosdadok

*Desollada* eta *Prácticas mágicas* eleberririk idatzi dituzten Nahikari Diosdado hernaniarrek, eta ostiralean aurkeztuko dituzte jendaurrean. Liburutegian izango da hori, arratsaldeko 18:00etan hasita. Aurkezpeneren ondoren, Alicia Perez Gil idazleak *Irakurketa jakintsua* tailerra eskainiko du. ■

■ HERNANI HAUR ANTZERKIA

## 'Pinocchio', larunbatean

*Pinocchio* antzerkia eskainiko du La Baldufa Teatre konpainiak larunbatean. Sei urtetik gorako haurrentzat izango da emanaldia, euskaraz, eta eguerdiko 12:00etan hasiko da, Biterin. Joan nahi duenak, dagoeneko erosi ditzake sarreak, Biteriko harreraren. Prezioa: 3 euro. ■



**GAUR** Goizean goiz laino ugari agertu daitezke, baina goizeko azken orduetan eta aratsaldearen hasieran gutxituz joango dira, eta eguzkia izango da jaun eta jabe. Ondorioz, tenperatura maximoek gora egingo dute. **Min.9° / Max.16°**

**BIHAR** Eguzkia izango da jaun eta jabe, nahiz eta tarteka lainoak agertuko diren. Ipar-ekialdeko haize fina izango da nagusi aratsaldean, batez ere. Tenperaturari dagokionez, maximoak gora egingo du eta udaberriko giroa nagusituko da. **Min.7° / Max.18°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Alzpuru** Latsunbeberri, 11 (Hernani) **943 336077** **Gaez:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

## ■ HERNANI SAN JOANAK

# Miren Saenz de Urturiren kartelak iragarriko ditu 2019ko San Joanak

Herritarren artean egindako bozketan, 292 boto jaso ditu irabazleak.

BI hilabete baino gutxiago geratzen da aurtengo San Joanetarako, eta dagoeneko badaukate kartel iragarlea. Hain justu, Miren Saenz de Urturi Erice hernaniarrak diseinatu-takoa izango da, herritarren botoei esker. Izan ere, hernaniarren artean egindako bozketan garaile izan da, 292 botoekin.

### 604 herritarrek, botoa

Denera hamaika proposamen jaso zituzten aurtengo San Joan jaiak iragartzeko, eta horietatik lau aukeratu zituen San Joan Jai Batzordeak, azken urteetan bezalaxe.

Lau kartel horiek herritarren esku jarri zituen Udalak apirilaren hasieran, eta horien artean izan da hautatua Saenz de Urturiren kartela.

604 herritarrek eman dute botoa guztira; 473 boto jaso dira web orriaren bidez (%78), eta 131, aldiz, Biterin bertan paperean (%22).

292 boto jaso ditu kartel irabazleak; 166, bigarren aukerak; 76, lehenengo aukerak; eta 70, hirugarrenak.

Hori horrela, oinarrietan jaso bezala, 600 euro jasoko ditu irabazleak, horietatik 300 euro, Berriak elkarte dendentan erosteko. ■



## ■ HERNANI HERNANI ERROTZEN



Ordubeteko hitzaldia eskaini zuen Josep-Lluís Carod-Rovira, galderen txandaren aurretik.

### Gertatu diren aldaketez eta etorkizuneko erronkez, Carod-Rovira

Hernani Errotzen eta Nabarralde gonbidatuta, Hernanin izan zen ostiralean Josep-Lluís Carod-Rovira kataluniarra. Areto nagusian elkartzeko herritar mordoaren arreta hasieratik bereganatuta, *Catalunya, geltoki burua: askatasuna* izenburupean eskaini zuen hitzaldia politikari independentistak. Hasieratik argi utzi zuen ez zettorrela «inori lekiorik ematera». Hori horrela, azken zazpi urteetan independentismoaren gorakada ekarri duen aldaketez jardun zen hasteko, eta izan dituzten arazo eta ahultasunak ere, aipatu zituen, baita etorkizuna nola ikusten duen ere: «independentziarik ez da izango, inteligentziarik gabe». ■

**KRONIKAK INPRIMAKETAKO LAN POLTSA BERRITUKO DU**

Bidali zure Curriculum Vitae-a, maiatzaren 6ra arte:

kronika@kronika.eus

Dobera Euskara Elkarte  
Larramendi 11 behea  
20.120 HERNANI

**ESKATZEN DA:**

- Euskara ondo menperatzea, hitzez zein idatziz
- Inprimaketa lanak egiteko gaitasuna
- Kotxeiko karneta eta kotxea izatea
- Lantaldean aritzeko gaitasuna
- Iniziatiba eta empatia

**BALORATUKO DA:**

- Inprimaketa lanetan esperientzia
- Urumea bailara ezagutzea
- Doberako bazkide izatea
- Tokiko hedabideak ezagutzea
- Aktualitatearen jarraipena egitea

**DOBERA EUSKARA ELKARTEA**

**Kronika**

**ERRIOGUARDA-ENEA**

**J A T E T X E A**

**ASTEAZKENA, maiatzak 1, eguerdian IREKITA**

Iturriaga kalea, 10. Hernani  
Tel: (943) 33 02 91

## ■ ASTIGARRAGA TXOTXONGILOAK

# ‘Denboraren taupadak’ gaur, kultur etxean

Arratsaldeko 17:00etan izango da txontxongilo emanaldia, Astigarragako kultur etxean.

IGANDERAKO plan ederra proposatuko die Patata Tropikala antzerki laborategiak astigarrarrei. Antzezleek eta txontxongiloek bat egiten duten *Denboraren taupadak* ikuskizuna eskainiko dute gaur, arratsaldeko 17:00etan hasita, kultur etxean.

Sarrerak dagoeneko salgai daude [www.astigarraga.eus](http://www.astigarraga.eus) web orrian. Dena den, gaur ere eskuratu ahal izango dira, kultur etxean. Prezioa: 2,5 eu-

ro, haurrek; 5 euro, helduek.

### Haserreari aurre egitea, erronka

Odei izeneko neskatxa da protagonista, eta lagunekin batera, ingurukoak gaixotasun arraro batetik libratzea du erronka: jendea haserre dabil, eta ia denborarik gabe. Horri aurre egiteko lana hartuko dute, Odei txirularekin, Marik gitarrarekin, eta Permin kale garbitzailea malabareekin. ■

## ■ DONOSTIA SOLASALDIA

### ‘Emakumeak greban’ solasaldia, bihar

*Emakumeak greban* izenburupean, solasaldia eskainiko dute bihar greba betean dauden Nekane Zabalak, Hernaniko ertzain-etxearen garbitzaileak, eta Aitziber Aranberri, Gipuzkoako egoitzetako langile batek, eta Onintza Irureta kazetariak. Donostiako Kaxilda liburudendan izango da, bihar 18:30etan. Irureta Berdea da more berria. *Bizkaiko egoitzetako grebalarren testigantzak* liburuaren egilea da. ■

## IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai Hernaniko erdigunean; 2 gela, sukalde, sala eta komuna. Egoera onean.  
Deitu: 628 116 949

Hernaniko Etxeberri auzoan harategia duen janari denda bat alokatzen edo saltzen da jubilatzaia dela eta. Interesatuak Deitu: 689 290 923

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

salestarrak magale

**ZEU ZARA!**

ATE IREKIAK  
BATXILERGOA ETA ZIKLOAK

MAIATZAREN 2an eta 30ean 18:00etan

DOMOTIKA, ROBOTIKA, DISEINUA,  
MANTENIMENDUA, SERIGRAFIA  
ETA INPRIMAKETA

KRISTAU ESKOLA

INFO  
www.salestarrak.com  
943 33 17 89